

113. ALDIZKARIA - 2008ko irailaren 15a

II. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA

2.1. ORDENANTZAK ETA BESTELAKO XEDAPEN OROKORRAK BAKAIKU

Ordenantza, Udalaren lokalen erabilera arautzen duena

Udalak, 2008ko uztailaren 18an egin osoko bilkuran, behin betikoz onetsi zuen Udalaren lokalen erabilera arautzen duen ordenantza. Haren kontra inolako erreklamaziorik, kexarik edo oharrik jaso ez denez jendaurrean egoteko epean, eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325.1 eta 326. artikuluan ezarritakoa betez, haren testu osoa argitara ematen da Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN.

Bakaikun, 2008ko uztailaren 22an.-Alkatea, Eduardo Urrestarazu Fernández.

ORDENANTZA, UDALAREN LOKALEN ERABILERA ARAUTZEN DUENA

I. TITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Ordenantzaren xedea.

Udalaren egungo eta geroko eraikin, lokal eta instalazioen erabilera arautzea eta horren aldera tasak ezartzea da ordenantza honen xedea.

2. artikulua. Oinarria.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 4.99 eta 262. artikuluetan xedatutakoaren babesean onetsi da honako ordenantza hau.

3. artikulua. Ordenantza honen esparru objektiboa.

Partikularrek erabil ditzaketen udal eraikin, lokal eta instalazio guztiei aplikatuko zaizkie ordenantza honen arauak, betiere xede bereko ordenantza berariazkoa ez baldin badute, edo udal eraikin, lokal eta instalazioaren erabilera kontratu berariazko baten bidez arautua ez badago. Orobat, ordenantza honetatik kanpo geldituko da udal eraikin, lokal eta instalazioaren erabilera, hura lege batek arautzen duenean.

4. artikulua. Bizilagun guztiek dute udalerraren lokal eta tokien erabilpen eta aprobetxamendu arrazoizkorako eskubidea. Araudi honen xedea da horiek bizilagun guztien eskura jartzea, eta gainera lortzea haien aprobetxamendua komunitatearen onerako izatea.

5. artikulua. Nolanahi ere, ordenantza honen xedeko ondasunen erabilera eta aprobetxamendua denbora epe mugaturako izanen da eta ez dira inoiz inola mugarik gabe lagako.

II. TITULUA

Antolaketa eta aprobetxamendua

6. artikulua. Udalaren eraikin eta lokalak erabiltzeko interesa dutenek Udaleko Idazkaritzan eskatu beharko dute, alkateari idazkia zuzenduz, gutxienez ere astebete lehenago.

Idazkiak honako hauek jasoko ditu: eskatzailearen datuak, eskariaren arrazoa, lagapenaren iraupena, egin beharreko jardueren zerrenda, okupatzaile kopurua, lagapenaren xedea...

Baimena eman aurretik, alkateak komenigarri iruditzen zaizkion agiri, txosten eta argigarri guztiak eskatzen ahalko ditu.

Eskatzaileak bat baino gehiago badira, erabilpenaren ondoriozko harremanak izaterakoan, horrexetarako izendatzen den lagunarekin edo, halakorik egin ezean, eskatzaileetan lehenbizikoarekin arituko da Udala.

7. artikulua. Udalaren eraikin, lokal eta instalazioak zaindu beharko dituzte erabiltzaileek, baita bertako altzariak ere, eta bertan behar den gizalegez jokatu.

Erabiltzaile batek akats edo narriaduraren bati erreparatuz gero, Udalari eman beharko dio haren berri, aprobetxamenduaren hasieran eman ere.

Baimenaren titularrak erantzun beharko du lokaletan eta bertako zeretan egiten diren kalteengatik, eta Udalak haien konponketa eska diezaioke, horretarako diren legezko bide guztiak erabilita.

8. artikulua. Debeku da lokalak baimendu den jarduketaz beste deusetarako erabiltzea.

9. artikulua. Udalaren eraikin, lokal eta instalazioen erabiltzaileek zainduko dute haien garbitasuna eta antolamendua. Egun bateko erabilaldiaren ondotik, garbitu eta altzariak eta barneko elementuak ordenatuko dituzte, beste hartzaile batzuek berehalakoan erabiltzeko moduan.

10. artikulua. Baimena emanda, lokalak ireki eta ixteko sarbide edo giltzak utziko dira interesdunen eskuetan. Hauek izanen dute haiek gorde eta Udaleko langileei bulegoetan itzultzeko ardura, jarduera bukatu eta ahalik eta epe motzenean; epe hori ez da inoiz ere 12 ordu baino gehiagokoa, non ez den beste bat laburragoa ezartzen. Erabilpenaren eskatzaileak delako giltza itzultzeko ardura izanen du eta ez du inola ere haren kopiarik eginen. Kopiak eskuratuz gero, denak itzuliko zaizkio Udalari eraikinak eta lokalak erabiltzeko epea bukatutakoan.

Gainera, baimena ematearekin batera, alkateak haren xede den lokalean agerraldi baterako deialdia egiten ahalko du, eskatzaileekin eta zinegotzi batekin. Lagapena bukatutakoan, berriz ere egiaztatuko da erabiltzaileek ordenantza honetan eta indarra duen legerian ezarritako beharkizunak bete ote dituzten.

11. artikulua. Alkateak kasu bakoitzean bidezko deritzona erabakiko du, irizpide hauei begiraturik:

-Jarduera mota: kultura, kirolak, negozioak, ikasketak...

-Eskatu diren bezalako eraikin edo lokalen eskuragarritasuna.

-Jardueraren hartzaileen kopurua.

-Xedea: irabazteko asmorik gabea, irabazteko asmoa duena...

-Lagapenaren iraupena.

12. artikulua. Udalak eskatzen ahalko du fidantza era dadin, legez onartzen diren moduetako edozeinen bidez. Udalaren eraikin, lokal eta instalazioak behar bezala erabili eta lagapenaren aitzin zeuden horretara lehengoratzeko betebeharrei erantzuteko izanen da fidantza.

Halaber, lagatako eraikin, lokal eta instalazioetan kalte-galerarik eragin bada, erabiltzaileek ordaindu beharko dituzten kalteordainen berme izanen da delako fidantza. Ordenantza hau aplikatuz zehapenik paratu behar baldin bada, horien ordainketari erantzuteko ere izanen da.

Eraikinak edo lokalak zenbat denboratarako laga diren, horregatik likidatzen den tasaren erdia izanen da gutxienez fidantzaren zenbatekoa eta tasa osoa gehienez.

Nolanahi ere, lokala erabiltzeko eguna baino 48 ordu lehenago eratu ez bada, besterik

gabe deuseztatutzat joko da lehenago emandako baimena.

Gisa berean, lokalaren erabilera aztertuta, erantzukizun zibileko poliza behar adina dirukoa kontratatzeke eskatzen ahalko dio alkateak partikularrari.

13. artikulua. Udalaren eraikinaren edo lokalaren erabilpena bukatutakoan, erabiltzaileek horren berri emanen diote Udalari. Udalak nahi hainbat ikuskapen egin dezake, erabiltzaileek Ordenantza honetan eta indarra duen gainerako legerian ezarritako beharkizunak bete ote dituzten frogatzeko.

Erabiltzaileek ordenantza honetan ezarritako beharkizunak bete dituztela, kalte-galerarik ez dela eta zehapenik paratzea bidezko ez dela frogatuta, Udalak fidantza itzuliko du, horrelakorik eratzea eskatu baldin badu.

Kontrara gertatuz gero, bidezko diren erantzukizunak galdatuko ditu. Horrelakoetan, ordenantza honetan ezarritako beharkizunak ez betetzetik, eragindako kalte-galeretatik eta bidezko diren zehapenetatik etor daitezkeen diru erantzukizunak ordaintzeko izanen da fidantza.

14. artikulua. Udalaren lokal eta instalazioak 3 motatan sailka daitezke:

A) Eginkizun iraunkorra dutenak eta, beraz, laga ezin daitezkeenak: Idazkaritza, Osasun Etxea, alkatearen bulegoa, zinegotzien bulegoa, Idazkaritzako bilera gela, artxiboa, liburutegia, erreminta eta materialen biltegia, frontoia...

B) Denbora baterako orduka laga daitezkeenak.

a. Auzo gela, kultur aretoak...

b. Alkatearen eskumena izanen da behar den baimena ematea, betiere inguruabar hauek gertatzen badira:

i. Eskaera, idatziz, gutxienez ere 7 egun lehenago, pertsona fisiko batek sinatua.

ii. Baliabidea zer ordu eta egunetan erabiliko den, horien deskribapena.

iii. Egin beharreko jarduera, horren arrazoia eta gainerako xehetasunak adieraztea.

iv. Eskatzailearen ardura, aretoa lehenago zegoen horretan uzteko.

c. Baimen behar bezala sinatua eskatzaileari ailegaraziko zaio, eta hartan espresuki zehaztuko dira lagapenaren kostua, prezio bat erabakiz gero, eta fidantzak, lagapenaren orduak eta gainerako xehetasunak. Prezioak urteko aurrekontuan finkatuko dira, edo bestela gero osoko bilkuran hartzen den erabaki batean.

d. Baliabide bererako eskaera bat baino gehiago baldin bada, esleipenaren lehentasuna honako hauei jarraituz egingen da:

i. Udal jarduera bat aurreikusia bada, haretzek izanen du lehentasuna. Betiere, Auzo Gelan osoko bilkura, batzarre edo udal batzorderik izanez gero, ez da toki hori lagatzeko inolako aukerarik izanen.

ii. Aurrekoa gertatu ezean, gizarte, hezkuntza edo kultur jarduerak lehentasuna izanen dute jarduera politiko edo sindikalen aldean.

iii. Betiere, erroldatuen eskaerak baizik ez dira kontuan hartuko, eta lehentasuna izanen dute 5 urte baino gehiagoko antzintasuna dutenek.

C) Denbora mugatu baino egonkor baterako lagatzen direnak, erabilera pribatibo batera, Udalak aldeztu aurretik osoko bilkuran erabakirik eta betiere inguruabar hauek gertatzen badira:

a. Eskatzailea legez eraturako elkarte izatea, Bakaikun egoitza duena, eta sozietatearen xedea izatea elkartekideen eta oro har udalerriko komunitatearen gizarte eta kultur onura.

b. Urteko memoria aurkeztea, eta haren jarduerak deskribatzea, bai bukatutako aldiak egin direnak bai hurrengo urtean egin gogo direnak.

c. Talde usufruktudunarekin kontratua egitea eta hartan eskubideak eta betebeharrak zehaztea.

d. Prezio bat finkatzea.

e. Lagapena bukatzeko data zehaztea, hura ez baita inoiz 10 urte baino luzeagoa izanen. Nolanahi ere, elkarrekin berarekin luzapen bat edo beste akordio bat egitea azter eta negoziatu daiteke, aldi bakoitzaren bukaeran.

Gaur egun bi lokal daude sailkapen horretan: Bakarreko Etxea elkarteari laga zaiona eta Hiru Haitzak erretiratuen elkarteari.

D) Bere erabilera arauak dituzten lokalak. Epigrafe honetan bakararra dago, frontoia alegia; haren araua gaur egun dagoen ordenantza izanen da edo, bestela, horren gainean egin daitekeen edozein aldaketa. Aparteko lagapenerako aukera bada, kultur, musika edo kirol ikuskizunetarako; horretarako, eskaera idatziz egin beharko da, 15 egun lehenago, pertsona fisiko edo juridiko batek sinatua, eta hartan azaldu egin beharreko jarduera, eguna eta ordua. Alkateak baimena eman beharko du, idatziz, eta hartan horren prezioa adierazi, inoiz ez baita izan behar instalazioa erabili eta garbitzeko kostua baino txikiagoa.

15. artikulua. Udalaren lokalak erabiltzeko ohiko ordutegia goizeko zortzietatik gaueko hamarrak arte izanen da. Beraz, ohiko erabileretarako lagapenak ordutegi horri lotu beharko zaizkio. Ordutegi horretatik kanpora, jarduera guztiek prezio gehigarria dakar berarekin, baita baimen espresua ere, baimenaren aditzera emate idatzian zehaztu beharko dena.

16. artikulua. Lokala lagatzeko prezioa aurretik ordaindu beharko da. Hala egiten ez bada, deuseztaturik geldituko da emandako baimena.

17. artikulua. Ez da inola ere lokal baten erabilpena lagako, erabilpenaren lagapena eskatzen duen elkartea edo haren izenean eskaera egin duen pertsona fisikoa zorretan baldin badago Udalarekin, betebeharrak fiskalak, zehapenak edo beste edozer ordainketa mota dela-eta.

III. TITULUA

Erantzukizunak, arau-haustekak eta zehapenak

18. artikulua. Udalaren eraikin, lokal eta instalazioen erabiltzaileek beren maltzurkeriagatik edo axolagabekeriagatik bertan eragiten diren kalte-galerak ordainduko dituzte.

19. artikulua. Okupatzaileak bat baino gehiago badira, batera eta solidarioki izanen dute ordainketaren erantzukizuna, bai tasei, bai lokaletan, instalazioetan eta bertan izan daitezkeen ondasunetan eragindako kalte-galeren kalteordainei, baita, hala behar baldin bada, ezartzen diren zehapenei ere dagokienez.

20. artikulua. Arau-haustetzat joko dira:

- a) Udalaren eraikin eta lokalak haren baimenik gabe okupatzea.
- b) Ordenantza honetan ezarri bezala, baimena izanik okupaturiko lokal edo egoitza egunero garbitzeko lanak ez egitea.
- c) Erabilitako lokal eta instalazioei edo lokal horietan dauden ekipo eta gainerako ondasun higigarriei kalte egitea.
- d) Alkatearen baimenik gabe, erabilitako eraikin edo lokaletan sartzeko giltzen kopiak egitea.
- e) Erabilitako eraikinak hustu eta berehala edo finkatu den epean bertan sartzeko giltzak ez itzultzea.
- f) Bertze edozein arau-hauste, ordenantza honen kontra.

21. artikulua. Goian aipatu arau-haustekak eginez gero, honako zehapen hauek ezarriko

dira:

a) Aurreko artikuluko a), b), d) eta e) ataletakoei, 100 euroko isuna ezarriko zaie.

b) Aurreko artikuluko c) atalekoei, kaltea edo galera zenbatekoa den, horrenbesteko isuna ezarriko zaie.

c) Aurreko artikuluko f) atalekoei, kasu bakoitzean aztertu beharreko zehapena ezarriko zaie. Nolanahai ere, zehapena ez da 150 eurotik gorakoa izanen.

Gainera, eragiten dituen ondorioak larritzat hartzen direnean, urte batetik 5 urtera bitarte lokalak erabiltzeko debekua ezar daiteke zehapen.

22. artikulua. Kalte-galerengatik bidezkoa gertatzen den ordaindu beharrekotik aparte ezarriko dira aurreko artikuluetan xedatutakoaren ondoriozko zehapenak.

Aurreko artikuluetan aipatutako erantzukizun eta zehapenak derrigorrezko betearazpenaren bitartez gauzatu eta betearaziko dira.

IV. TITULUA

Udalaren eraikin, lokal eta instalazioak erabiltzeko prezio publikoak

23. artikulua. Ordaindu beharra. Pertsona fisiko nahiz juridikoek, baita, nortasun juridikoa izan ala ez, erakunde edo entitateek ere, Udalaren lizentzia eskuratu ondotik Udalaren eraikin, lokal eta instalazioak erabiltzeagatik ordaindu behar da prezio publikoa.

24. artikulua. Subjektu pasiboa. Aldez aurretik Bakaikuko Udalaren baimena izanik haren lokalak egiazki erabiltzen dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak, elkarteak, kirol eta josteta elkarteak oro har, eta erakundeak, nortasun juridikoa izan ala ez, horra tasa hauen subjektu pasiboak.

25. artikulua. Tarifak. Urteko aurrekontuan ezarriko dira, Udalak noiznahi aldatzen ahal baditu ere. Betiere, irabazteko asmorik ez duten jarduera sozio-kulturalen antolatzaileak salbuesirik egonen dira prezio publiko honetatik. Tarifa hau ez da aplikatuko frontoia kirolaz kanpoko jardueretarako erabiltzen denean. Erabilera hauek banan-banan aztertuko dira eta are urteko aurrekontuan finkatua baino tarifa handiagoa ere aplikatzen ahalko da.

26. artikulua. Salbuespenak eta hobariak. Ordenantza honetan aurreikusitako tasen gainean, lege edo administrazio izaera duten arauetan espresuki onartzen diren salbuespen eta hobariak baizik ez dira onartuko.

27. artikulua. Ordaindu beharra noiz sortuko. Udalaren eraikin, lokal edo instalazioak erabiltzeko eskaera egiten den unean sortuko da prezio publikoa ordaindu beharra. Lokalak egiazki erabili aitzin egingen da haien ordainarazpena.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Ordenantza hau onetsi aurretik Udalaren lokal, eraikin edo instalazioak modu iraunkorren erabiltzen ari ziren entitateek akordio bat egin beharko dute Udalarekin, kontratu bat sinatu beharrez zerbitzu publikoko ondasun horien erabilera pribatiboa arau honi jarraikiz arautzeko.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Ordenantza honen xedapen gehigarriak sei hilabeteren buruan hartuko du indarra. Sei hilabeteak iragandakoan akordiorik ez bada, aipatu entitateek lokalak hustu beharko dituzte. Horretarako, bi hilabeteko epea emanen du alkateak.

Iragarkiaren kodea: L0812682